



2. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA AZTERKETA IDATZIA

1. ABIZENA _____

2. ABIZENA _____

IZENA _____

NORTASUN-AGIRIA _____

AZTERKETA -EGUNA _____

AZTERKETA -TOKIA _____

ARGIBIDEAK

- Azterketa idatziak bi ariketa ditu: irakurmena eta idazmena. Bi ariketa hauek egiteko **ordubete eta 40 minutu** izango dituzu.
- Irakur itzazu ariketa bakoitzaren aurrean datozen argibideak, eta egin ezazu bertan jartzen duena.
- Ariketak boligrafoz egin behar dira. Saia zaituz letra txukuna egiten.

1. IRAKURMENA

- **Ariketa-mota:** CLOZE-TESTA
- **Nola egin:**
 - Ondoren, 50 hutsuneko testu bat daukazu. Testuko zenbaki bakoitzak hitz bat kendu dela adierazten du.
 - Aukeratu erantzun egokiena *aukeren orrian* eta markatu **erantzun-orrian**.
 - Ezer egin aurretik, artikulua osorik irakurtzea gomendatzen dizugu.

ZERTAN EMATEN DUGU GURE ASTIALDIA?

Gure zibilizazioa materialista dela entzun izan dugu askotan, baina beste era batera pentsatzen duenik ere badago. Alan Watts filosofo britainiarra zen horietako bat. Bere ustez, gure gizartea materialismo osasuntsuaren antipodetan dago. Izan ere, zibilizazio honek bere oinarri materialak deuseztatzen indar handia jartzen du —Wattsek munduaren *losangelesizazioaz* hitz egin __1__ zuen, hau da, bazter guztiak Estatu Batuetako hiri itsusi, kutsatu eta asfaltoz betearen __2__ bihurtzeko obsesioaz—. Hala ere, bere iritziz, astialdiaren __3__ da materialismotik zein urrun gauden erakusten duen sintomarik __4__.

Gure gizarte __5__ eta teknifikatu honetan benetan materialistak __6__, denbora librearen —hau da, nahi __7__ egiteko askatasuna dugun tartea— __8__ plazer materialetan inbertituko genuke: jaki goxoz betetako __9__, sexu-orgia alaiak, dantza eta musika-festak, eta abar. Eta zer egiten dugu? Etxeko egongelan sartu eta telebista ikusi. __10__ daki zein den arrazoia! Lanak eragindako nekea, __11__ falta edo erosotasuna oinarri duen inertzia soziala. __12__ da, aberastasun eta baliabide material __13__ duen kultura honetan, errealitate materialaren gezurrezko isla __14__ konformatzen garela. Denak isilik, ondoan ditugunengandik __15__, askara botatzen diguten pentsu kulturala kolkoratzeko prest.

Ordezko plazeren __16__ bizi gara. Jan, lo eta amodioa egitea omen da __17__ gustatzen zaiguna —hala diote gehienek—, baina, behin eta __18__ egiten diren inkestek __19__, lo gutxiegi egiten dugu, sexua (benetakoa, ez Interneten __20__ saltzen duten itxura digitaleko hori) larunbat gauean hogeit minutuz betetzen den ohitura da, eta janari __21__ jaiegun seinalatuetarako uzten dugu; eguneroko platerean, aldiz, McDonalds eta futbola nagusitzen dira. Nola ulertu, __22__, hamahiru milioi pertsonak (Espainiako estatuko populazioaren herenak) *Operación Triunfo* izeneko luxuzko karaoke erraldoia ikustea baino __23__ hoberik ez izatea? Ondo uleriezadazue: nire asmoa ez da inoren gustuak __24__, baina gizarte osoa marketing-operazio huts baten __25__ hain alaiki irensten ikustek zer __26__ ematen du.

Ez dut __27__ karaokearen kontra, ezta diskoetxeek antolatutako *casting*-en aurka ere, baina harrিতuta nago __28__ interesatu honekin guztiarekin. Egia esan, __29__ pertsona horiek benetako karaokera joan eta bihotza kantuz alaituko balute, __30__ erdi. Poztu ere egingo nintzateke, ikusle pasibo izatea baino __31__ baita nork bere ahotsa entzunaraztea, tabernan __32__ ez bada ere. Baina erreferenduma __33__ eta hiru milioi pertsonak minutu gutxitan inora ez doan bozketa __34__ batean milioika euro xahutu dituztela irakurtzeak __35__ utzi nau.

__36__ da, noski, komunikabide batzuek egiten duten bonbardaketa, horietako askok __37__ ateratzen diote-eta negozio handi honi, bide batez gure __38__ komeni ez zaizkien gaietatik apartatzea lortuz. Hala ere, aho __39__ utzi nau *Eurovision* zaharkituaren __40__ operazio komertzial nabarmen batek nolako __41__ lortu duen ikusteak. Eta zenbat diru eta kemen inberti __42__ jendeak beste batzuen arrakastaren fabrikazio-prozesuaren lekuko izatearen __43__. Ilusioa potoetan saltzen dutenak bapo bizi dira itzalean, diruaren gainean __44__ ametsak betetzen, eta besteek, __45__, argien aurrean jarriko den hurrengo izango direla __46__ egiten jarraitzen dute, eta programaren hurrengo diskoak erosteko beharko dituzten __47__ irabazten. Marxek erlijioa herriaren __48__ zela esaten zuen. Orain biziko balitz, telebista dela esango luke. Baina alde handia dago: apaizak __49__ ez dira izan pantaila katodikoa bezain hipnotikoak. Ondo pentsatuta, hori baino ez dugu behar, telepredikatzaileen moda ere gure artean errotzea. Azken finean, hamaika ikusteko __50__ gara.

Martin Barriuso
Zabalik aldizkaria, 118. zk.
Egokitua

1.1. AUKEREN ORRIA

- | | | | |
|---|---|--|--|
| 1. a) al
b) ohi
c) ote
d) ari | 2. a) antzeko
b) bezalako
c) berdineko
d) antzinako | 3. a) agintera
b) erabilera
c) hasiera
d) saiakera | 4. a) argia
b) argiagoa
c) argienik
d) argiena |
| 5. a) franko
b) koldar
c) oparo
d) mutu | 6. a) baziren
b) balira
c) bagina
d) baginen | 7. a) dugun
b) dugunik
c) dugula
d) duguna | 8. a) egiazko
b) egiaren
c) egiako
d) egiatako |
| 9. a) goseteak
b) ogitartekoak
c) otorduak
d) zirriborroak | 10. a) Batek
b) Norbaitek
c) Hainbatek
d) Edonork | 11. a) irudikortasun
b) irudimen
c) irudikapen
d) irudimentsu | 12. a) Gezurrezkoa
b) Kontrakoa
c) Kontua
d) Ipuina |
| 13. a) ugari
b) handia
c) multzoa
d) maiz | 14. a) elektronikoagatik
b) elektronikotik
c) elektronikoan
d) elektronikoarekin | 15. a) atzemanda
b) inguratuta
c) aparte
d) pozik | 16. a) garaian
b) maldan
c) irudian
d) alean |
| 17. a) soberan
b) hoberen
c) gehien
d) batere | 18. a) behin
b) bi aldiz
c) berriz
d) orain | 19. a) diotenez
b) diotelako
c) diotela-eta
d) diotelarik | 20. a) bidez
b) aitzakiaz
c) zehar
d) altzora |
| 21. a) azkarra
b) zaborra
c) gordina
d) goxoa | 22. a) aldiz
b) horrelakoa
c) bestela
d) orduan | 23. a) ekintza
b) zeregin
c) garai
d) atsekabe | 24. a) antzeztea
b) goraiatzea
c) zapuztea
d) xuxurlatzea |

25. a) amua
b) armiarma
c) sarea
d) orratza
26. a) pentsatuta
b) pentsatuz
c) pentsatzea
d) pentsatua
27. a) edozer
b) inor
c) zerbait
d) ezer
28. a) itzuli
b) jipoi
c) zalaparta
d) jaiopera
29. a) milioiak
b) milioi
c) milioiko
d) milioika
30. a) erdiz
b) ondo
c) gaitz
d) poz
31. a) hobeto
b) hoberik
c) hobean
d) hobe
32. a) besterik
b) baina
c) behin
d) nahiz
33. a) baztertu
b) antolatu
c) salatu
d) onartu
34. a) hedatu
b) argal
c) hutsune
d) hutsal
35. a) txundituta
b) pozik
c) harrotuta
d) harrizko
36. a) Ulermenekoa
b) Ulertzekoa
c) Ulertuko
d) Ulerkorra
37. a) harrapakina
b) izokina
c) hondakina
d) etekina
38. a) arreta
b) nazka
c) asmoa
d) kolkoa
39. a) hertsirik
b) zabalik
c) bete
d) hortzetan
40. a) inguruko
b) aldamenekoa
c) aurreko
d) aurkako
41. a) onbeharra
b) onarpena
c) omenaldia
d) baimena
42. a) dezakeela
b) dezakeen
c) dezake
d) dezakeenik
43. a) alde
b) truke
c) aurka
d) orde
44. a) zuzendutako
b) botatako
c) eraikitako
d) eragindako
45. a) hala ere
b) orobat
c) orduan
d) bitartean
46. a) oihu
b) dei
c) hitz
d) amets
47. a) sosak
b) sariak
c) hondarrak
d) partidak
48. a) burukoa
b) lotarazlea
c) eragilea
d) lo-belarra

49. a) lehen
b) sekula
c) batez ere
d) orain

50. a) etorriak
b) jaiok
c) itzuliak
d) ohituak

1.2. ZUZENKETA-ORRIA

- **Irakurgaia:** "ZERTAN EMATEN DUGU GURE ASTIALDIA?"
- **Ariketa-mota:** CLOZE-TESTA
- **Baremazioa:** Irakurmenaren atala gaindituzat emateko, gutxienez 30 itemi erantzun beharko die zuzen azterketariak.

ERANTZUN ZUZENAK

1.	B	2.	A	3.	B	4.	D
5.	C	6.	C	7.	D	8.	A
9.	C	10.	A	11.	B	12.	C

13.	A	14.	D	15.	C	16.	A
17.	C	18.	C	19.	A	20.	A
21.	D	22.	C	23.	B	24.	C

25.	A	26.	D	27.	D	28.	C
29.	D	30.	C	31.	D	32.	A
33.	B	34.	D	35.	A	36.	B

37.	D	38.	A	39.	B	40.	A
41.	B	42.	B	43.	B	44.	C
45.	D	46.	D	47.	A	48.	D
49.	B	50.	B				

2. IDAZMENA

- **Ariketa-mota:** ESKUTITZA
- **Nola egin:**
 - Gutxienez 35 lerro idatzi behar dituzu.
 - Zaindu eskutitzaren egokitasuna, ulergarritasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.
 - Letra garbia eta txukuna egiten saiatu.

GAIA: Azken bolada honetan etxean arazoak dituzue urarekin: ura moztu izan dizuete, ura zikin ateratzen da, eta abar. Auzokoekin hitz egin duzu, eta haiei ere beste horrenbeste gertatzen zaie. Gainera, azken erreziboan ura asko igo dizuete.

Idatz iezaiozu kexa-eskutitz bat alkateari, auzokide guztien izenean, egoera azaltzeko eta konponbideak eskatzeko.

30

35

40

45

50
